

Laur urtaroak

UDALEHENA

Allegro

Jin denean udalehena bozkariotan
Kantu airosez demote xoriek agurra;
Ithurriek ere haize xurien hatsean
Jalgitzean eztiki dagite gurguria.

Hedoi beltzez aireak estaltzen dituztela
Datozte, haren mezulari zimizt' ortzantzak;
Hek ixiltzen direnean berriz xoriñoak
Bere kantu xoragarrietan hasten dira.

Largo

Eta soro loreztatu gurian etzana
Orstail eta landaren abarrots goxoetan,
Ondoan or leiala, lo da hor ahuntzaina.

Allegro

Artzain xaramelaren bestako soinueta
Jantzan ari dirade Ninfak et' Artzaina
Udalehen argiaren hegatz maite-pean.

UDA

Allegro non molto - Allegro

Urtaro gaitz Iguzkiz lehertuan ahitzen
Da gizona, ahitzen artaldeak, sutan da
Leherra, kukua badantzute, kantuz hasten
Dirad' elgarrekin karddinal et' urtxaphala.

Zefir eztiak hasperen, hortan ihardespen
Ber' auzo berriari Boreak berehala,
Artzaina deitoratzen da, duelakotz senditzen
Erauntsi basaz, eta bere zoriaz lotsa.

Adagio - Presto - Adagio

Haren soinadar akhituer atsedean beharra
Daue zimizt-ortzantz gaitzen beldurrak ebasten,
Uli-lesparatalde bat eroa gainera.

Presto

Zorigaitzez haren beldurra zein egia den!
Ortzian ihurzuri 'ta phindar, bahazuza
Buruxka mozten ari da, bihien ixurtzen.

LARRAZKENA

Allegro

Laborariak jantzez kantuez ospaturik
 Zoriz egin den uztaren atsegin ederra,
 Bakuzen edaritik hainbat aldiz harturik,
 Bozkarioz azkenean doaz lokhartzera.

Adagio molto

Bakoitzak utzi ditu kantuak eta jantzak
 Epheldu den aireak deramatz' atseginera
 Hainbaterano du gomitatzen Urtaroak
 Eztieta den loaz ederki gozatzera.

Allegro

Ihiztariak ihizira doaz ozkorritz
 Ihiztorrekin, adar, zizpekin jalgi dira,
 Ihesi doan ihizi hatzari jarraikiz ;

Ja laztatua, hezia zizpen, ihiztorren
 Hots handiaz, ihizi zauriak ahuldua
 Ihes joan nahi du, hertsaturik hor da hiltzen.

NEGUA

Allegro non molto

Elhurren dirdiran daldaratuz ezindua,
 Haize garratzaren ufa laztagarrietan
 Oinez lurrari joka noiz nahi lasterretan,
 Eta horma handiengan hortzen karraska ;

Largo

Egunak iragaiten goxoki sutondoan
 Euriak duenean mainatzen baserria ;

Allegro

Horma gainean ibil emekituz urhatsa
 Itzulikan erortzeko beldurra gogoan ;

Inguruka da lerratzen, erortzen lurrera,
 Berriz hormara joaiten zaluturik lasterra,
 Horma hauts eztadintzat eta joan phorrosketan.

Athe gakatuetan zehar senditzen dira
 Ziroko, Borea, haizeak oro gudukan :
 Horra negua, badu bere bozkarioa.